



MARAÑON GESALAGA EDURNE
LORAMENDI KALEA, 06-10.C
ARRASATE

2

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Irailak 22 33. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Kalistroak, erakusketa gune eta lan-leku bihurtuta



Atzo aurkeztu zen Euskal Herri osorako kilometroak 89ko egitaraua. Txirrinduza-leok aspaldiko "Kilometro lanzaua" duzue igande arratsaldean Oñatin.

ORAIN ETA HEMEN

Atxiloketa gehiago Arrasaten
Egunotan Euskalerriko beste herri ugaritan bezalaxe, gurean ere burutu izan dira atxiloketak. (11. or.)

Takolo zikinkeriaz beteta
Takoloko zabortegei inkontrolatuko zaborrak, neurri gabe gehitzen ari (12. or.)

ELKARRIZKETA
Albina Madinabeitia
Bibolin-jole arrasatearrarekin hitz egiten. (19. or.)

PODIUMA
Urte askotan Mondrako jokalaria izan ondoren, egungo Pedruskoko entrenatzailea, **Ramon Luengo** eka- rri dugu txoko honetara. (21. or.)

Arte hamabostaldia martxan


Irailaren azken hamabostaldian, Ospital Zaharraren lokaletan herriko zenbait artistak bultzatutako arte-hamabostaldia ikusteko aukera dugu arrasatearrok. Arte hamabostaldi honetan, sei tailer ezberdinetan hamazortzi gaztek dihardu lanean, artelana guk uste baino lan zabalagoari dei dakiokela adierazi guran. Hamabostaldi honen ideia herrian lau urtez burutu izan den eskultura simposiumari alternatiba egokia aurkitu nahi izatetik sortu da eta badirudi lortu egin dutela; edozein modutan ere, orain arrasatearron erantzuna ikusi behar. (16. or.)



HOTZ - BERO

Kanpantorpea, 2 Tfnoa: 79 70 98 / 79 67 54
ARRASATE

TOSHIBA
BENETAKO KONFORTA



AIRE EGOKITUA

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako anbulantziak	458744
-------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	79 78 44
.....	79 76 78

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	798777
---	--------

22 OSTIRALA

— Zinea: Alai: "Salvajemente tuya", 7etan eta 9,30etan.

Novedades (Bergara): "Mi novia es una extraterrestre", 10,30tan.

Monterronen: 10,30tan "Gothic".

— Arte hamabostaldia: Hitzaldia, Miguel Mari Lasa eta J. A. Iturbek. "La parroquia de San Juan Bautista en restauración". 7etan.

— Oñatin: Rock jaialdia, Zubikoa kiroldegian. Zarama, Tijuana eta La Polla taldeekin, 10,30etan.

— Goardiako farmazia: Morales, San Andresen.

23 LARUNBATA

— Zinea: Alai: "Cariño, he encogido a los niños" eta "Dolor de barriga". 5, 7,30 eta 10etan.

Novedades (Bergara): "Mi novia es una extraterrestre". 5, 7,30 eta 10,30etan.

— Polikiroldegian: Arratsaldeko 5etan, EMAN ZUREA kanpainaren barne Sebastopoleko Titiriteroak eta Imanol Urbieta.

— Oñatin: Haur danborrada, arratsaldeko 6etan.

— Oñatin: Erromeria "Hator" taldearekin, 8etatik 9,30etara eta 10,30etatik aurrera.

— Oñatin: Zubikoa kiroldegian "VI Mikel Deunaren saria"ri dagozkion pilotapartiduak, 10,30etan.

— Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías kalea.

24 IGANDEA

— Zinea: Alai: "Cariño, he encogido a los niños" eta "Dolor de barriga". 5etan, 7,30etan eta 10etan.

Novedades (Bergara): "Mi novia es una extraterrestre". 5, 7,30 eta 10,15etan.

Oñatin: "Lauaxeta", Santa Ana antzokian, 10,30etan.

— Atxabalpen: Mondra-Real union,

4,30etan.

— Oñatin: Txirrindulari proba, "Kilometro lanzatua". 4retan.

— Oñatin: S. Ana antzokian, 7,30etan, Donostiako Kontserbatorioko akordeoi orkestaren kontzertua.

— Goardiako farmazia: Español, Iturriotz kalean.

25 ASTELEHENA

— Zinea: Alai: "Cariño, he encogido a los niños". 7 eta 9,30etan.

Novedades (Bergara): "Mi novia es una extraterrestre". 7,30etan.

— Oñatin: Santa Ana antzokian ikastolako haurren antzerkia eta Txantxi-ku-txiki abesbatzaren emanaldia. 4etan eta 6,30etan.

— Oñatin: Hitzaldia 8,30etan. Gaia, "Emakumea eta osasun mentala".

— Goardiako farmazia: Corcuera, Musakolan.

26 ASTEARTEA

— Zinea: Alai: "Cariño, he encogido a los niños". 7etan eta 9,30etan.

— Goardiako farmazia: Irizar, Erguinen.

27 ASTEAZKENA

— Garagartzan: 8etan, Alvaro Arrizabalagaren hitzaldia. Gaia, "Lezetxikiko koba".

— Oñatin: 7,30etan Santa Ana antzokian B. Atxagaren hitzaldia. Gaia, "Historio berbera hizkuntza ezberdinetan".

— Goardiako farmazia: Amezua, Santa Marinaran.

28 OSTEGUNA

— Garagartzan: Zinea, auzoetxean 9,30etan.

— Oñatin: Herriko kaleetan zehar, 10etan danborrada nagusia.

— Oñatin: Foru enparantzan 11etan, dantzaldia Akelarre taldearekin.

— Goardiako farmazia: Ruiz, Madalena kalean.

IRTEERAK

Baztanera. Besaide Mendizale elkarteak antolatuta. Goizeko 7tan Garibaiko geltokian. Ibiltaldia Ixpegi, Auza eta Errazun zehar.

IKASTAROAK

IMI programaren barne "Open Acces", laugarren maila. Irailaren 25ean hasita, astebetetz. 20 ordu.

KONTZERTUAK

Oñatiko Banda Munizipala. Igande goizean, 11,30tan kalejira. 12,30tan Monterronen kontzertua. Amenabar, Rosinni, Sorozabal, Webber eta Jose Francoren obrak eskainiko dituzte.

ERAKUSTALDIAK

Arte hamabostaldia: Egunero argazki, grabatu, pintura, zeramika eta bideo erakustaldiak ospitale zaharrean.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate pasealekua, 3-Bis, behea.
20500-ARRASATE -TF.79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Ruth Otaduy

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3
Bis, behea. 79 71 64

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 4.200 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Eguraldi iragarpenak

Zer gertatuko litzateke gizakiekin eguraldiari buruzko solasgairik ez balitz? Horixe da askotan nire buruari galdetu diodana eta ia gehienetan ondorio berberara heldu naiz: berezko gure mututasuna larru gorritan azalduko litzaziguke. Konturatu al zara, irakurle, zernolako maiztasun garaiz baliatzen garen eguraldiaz gure elkarrizketetan? Ez dut uste inor egongo denik hain salbakor ei den gai hori eguneko bizpahiru bider erabiltzen ez duenik.

Igogailua, arraindegiko salma-haia, txikiteoa, lanerako bidea, ohe eta gimnasioa,...edozein toki aproposa ei da-dirudienez- inork ulertzen ez duen eta asmatzen ez dakien zientzia horri buruz eritzirik agertzeko. Unbe nahiz Gorbeiaiko artzaiek, Jose Ignazio Usabiagak eta Arantzazuko Pello Zabalak-den denek-antzerako hutsik iragartzen digute, behin eta berriz, bitartekorik apal edota sofistikatuenak erabili arren.

Hala ere, egunkari, irrati eta telebistek hogetalau orduoro euren mapa bitxitxo darakuskigute, itsas kirri, haize abiadura, marea, euri arrisku...eta abar luzearen ezaugarrietaz apainduta. Eta gu, sinesgarritasunari ezarri beharreko erlatibokoefizienteaz lagundurik, iragarritakoaren zai geratzen gara.

“Biharko eguraldi eguzkitsua agindu dute Euskadi Irratian” dio batek, besteak ba “Loiolakoak hego haizearen eraginez laino ugari izango dugula esan du” erantzuten diolarik. Ez dakit noiz arte itxaron beharko dugun eguraldiaren gaineko apustuak antolatzen direla ikusi arte. Eusko Jaurlaritzak, agian, “eguraldi kiniela”-ren ideia erregistratu beharko luke, apustuzale ez garenon sake-lak grinadunen bizkar atsedean daitezzen. Behintzat, etekin piskat atera ahal izango genioke eguraldiaren inguruko nahasteari.

Irail zoro bat iragarri ziguten, zeharo aldakor edukiko genuela esan arren guztiz zoragarria izan den abuztuaren bukaeran. Udazken irregularra agintzen digute orain. Terminologiaren zehaztasunik ezak zailantzaren hutsunea handiagotzen du. Beharbada, eguratsean osatzen ari omen den Negutegi-Eragile ospetsu horrek iragarle denak jokoz kanpo harrapatu ditu, horien buru-eskemetan pilaturikoa gaurregun zeharo erren geratu zaiela ohartuz.

Dena den, txisteak dioen bezala, ofiziorik seguruen a ei da eguraldi iragarlearena, izan ere inor ez baita lanpostutik kenduta izaten bere bete-beharrean arras okertu arren.

Josemari Velez de Mendizabal

EDERRA

Iturriotz kalea, 12 Tfnoa: 79 96 25

KAJOI TABERNA

**erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27**



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa:799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

ASA

ASEGURUAK


Zeuren ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

**ZURE ESANETARA
GAUZKAZU!!**

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 79 69 00

ARRASATE



Besaideko hormarria

Badu Besaide aldeak bitxikeria asko, nagusiena akaso eta bere izatearen oinarria, hiru probintziaren muga dela. Hori hala denik ukagaitza da eta bertara heldu ez diren askok ere jakingo dute hainbestera. Baina bada beste bitxikeria bat ere mugarri honen inguruan, joan ez den jendeak ezagutuko ez duena seguraski. Zertaz ari naizen? Argazkian ikus ditzakezuen Inperioko arranoa eta hormarri kurioso horietaz.

Bertan dioenez 1955garren urtean ezarritakoak dira eta garai haietan gauzak ziren moduan zirelako eta geure gain zegoena zegoelako, ulergarria da urte horietan jarria izatea. Baina harez geroztik euriak sarri buzti gaituenez eta hori jartzea agindu zuenaren laguna ere aspaldi buzti gabe dagoenez, bada sasoia gu geuk geure gustoko eta gure izatearen neurriko bat jartzeko.

Mendizaleok lehenagoko oroitzapenak onartzen eta maite ditugula uste dut eta zenbait eta zaharragoa maiteago. Baina dituen ezaugarriengatik ez dut uste inork maite duenik eta ez dut uste ere denboraren joanak maitagarritasunik emango dionik duen kutsua dela eta.

R. M. Z.

Arrasate Press, atxiloketak direla eta, manipulatzan

Gogorra da gutun honetako titularrak moduko batekin hasi beharra, baina, zoritxarrez, hala da. Arrasate Press-ek, duela aste pare bat Arrasaten izandako atxiloketen inguruan MANIPULATU egin du, errealitatearen alderdi bat besterik ez bait du erakutsi.

Astero bezala, aldizkaria hartu genuenean eta gure etxearen gainean - Xabier, Igor eta Joseba- idatzitakoa

irakurri, a ze harridura! "Baina hori bakarrik gertatu al da, ba?" zen gure buruei egindako galdera: atxiloketa, Garzón epailea, ETAko "Jatorra" komandoa, Ikutixo, Ertzantza... Antza, ostiralean ez zen 500 pertsonako manifestaziorik egin; ez ziren izan, ezta ere, Arrasaten Ertzantzarekin gertatutako istilu handienetarikoa; larunbatean ere ez ziren beste 200 pertsona bildu, ezta igandean 300; asteartean ere ez ziren beste 100 pertsonako enkarteladarik izan... Beno, agian bai, guzti horiek izan ziren, baina badirudi Arrasate Presekoek ez zirela enteratu, edo agian horrek ez du garrantzirik, edo... auskalo!

Guretzat, albistean ESATEN EZ DENA da garrantzitsuena, alegia, arrasatear askok biziki protestatu duela atxiloketa hauen aurrean. Ondo dagoen euren omen dutena, gazteak direla, apoioa merezi duten ala ez... hori bakoitzak baloratu beharko duena da, baina GORDE EZINA dena zera da: Arrasaten Xabier, Igor eta Josebaren atxiloketaren ondorioz, euren aldeko mobilizazioak egon direla.

Nahi diren balorazio guztiekin -onak ala txarrak-, mutil hauek, beste milaka bezala, gure Euskal Herri honetako bizi duen egoera politiko gatazkatsuen emaitza dira, jadanik preso politikoak, eta badute Herri honetako sektore garrantzitsu baten apoioa.

Ederto dakigu -eta onartu ere- Arrasate Press-en izaera zabalaz, baina zabaltasunak ezin du errealitatea gorde. Manipulazioa ez da bakarrik gezurra esatea, manipulazioa da baita ere errealitatearen alderdi garrantzitsu bat gordetzea. Informazioa arriskutsua da, are gehiago politikoa, baina astekari bat ateratzean errealitatea ahalik eta objetibotasun handienarekin azaldu behar da -nahiz eta objetibotasun osoak existitu ez-, eta gero, norberak baloratu dezala

Xabier, Igor eta Josebaren etxeok

Erredazio oharra: Onartu beharra dugu, zoritxarrez, kasu honetan egiten zaigun kritika. Albistea ez genuen behar bezala landu, eta sentitzen dugu. Hala ere, ez dugu uste manipulazio hitza egokia denik kasu honetan, albiste hori lantzerakoan ez bait ditugu gauzak egin gaizki informatzeko borondatearekin. Hanka sartu dugu eta benetan sentitzen dugu.


Ondo ikusten duzu zuribeltzeko filmak koloretan ematea?




Asier Aranburuzabala
(ikaslea)
Berdin dit, baina egia esan, nik pelikulak koloretan gurago ditut.



Balentina Retolaza
(langilea)
Ondo ikusten dut koloretan botatzea zuribeltzeko filmak.



Arantxa
(etxeoandrea)
Egia esan, ez dut telebistarik ikusten, horren inguruan zerbait entzun dut, baina telebistarik ikusten ez dudanez...



Rufino Laskurain
(langilea)
Beno, koloretan hobeto daudela uste dut.

L E N I Z

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9-Tlf. 79.46.04

ESKORRIATZA-Arana, 13-Tel. 79.36.59

**I
R
A
T
I**

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

- * Odontologia orokorra
- * Protesi finkoa
- * Protesi mugikorra
- * Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

**TXOKO
TABERNA**

Eure berezitasunak
pintxo eta mokau
gozoak.

.....

“Unión Cerrajeraren historia enplegua baztertzeko, modernizatzeko eta aurrera ateratzeko, onura jaso duen enpresetako beste bat da. Hauen historia beste askoren antzekoa da, “saiak” prest daude kapitalak jasotzeko, fondo publikoekin atera eta, hau da, gure patriketako diruaz, tajadarik handiena atera eta, ahal dela, administrazio-kontseiluetatik maneiatzen jarraitu euren interesak defendituz.

Zer egingo ote du Madrilgoa den Mercapital-ek Arrasaten? Unión Cerrajerako oraingo arduradunek zera diote, aipatu finantz talde honek ez duela aurrikusita ezelako OParik (...) Indar erlazioaren arabera eta Arrasateko enpresaren administrazio-kontseilu barruan ikusten dutenaren arabera izango da.”

(Daniel Udalaiz kazetariak Egin egunkarian)

“Ez pentsa Mondragoe kalca bakarrik denik. Aurten hasi gara lehenengo aldiz Mondraren kartelak euskaraz ateratzen eta horrela jarri dira auzo eta taberna guztietan. Dagoeneko S. Andresko hiru tabernatetik deitu dute ipinitako kartelak kendu dituztela esanez, eta hemendik aurrera kartelak erdaraz eramateko eskatuz. Mondragoe holakoxea da”

(Jose Luis Etxebarria, “Porru”, Mondra futbol taldeko lehendakariak)

“Leibarrek hartu behar izan zuen On Jose Mariak utzitako testigantza eta “arriskuaren aurrean bakarrik”, Taldearen ikuspegi zabalkunderako aldizkari honen (TU-Lankide) zuzendaritza hartu zuen, hain zuzen 1976-1984 epealdian. (...) Leibar metodiko eta luma arina, hitz horiekin definienez aldizka argia ikusten duen edozein paper-mota gordetzeko afizioa duen gizon honen karikatura”.

(Juan Ignacio Mora kazetariak TU-Lankide aldizkarian)

.....

Posible al da Andaluzian zaldien artean sortutako izurritea gure bailarara heltzea? Eta behien arteko perineumonia?



Beno, zaldi izurritea bero handia egiten duen tokietan eulien bidez hedatzen da. Gaur egun dauden komunikabideekin, beharbada posible da ordu gutxitan zaldi bat Andaluziatik hona etortzea, baina momentu honetan mugak itxita daude eta zaldiak ezin dira Andaluziako lurralde autonomotik irten. Bestalde, Gipuzkoako zaldi guztiak erregistratuta daude, nitrogeno likidoz egiten zaien marka baten bidez, zaldi bakoitzaren nortasun datu guztiak dakizkigu. Beraz, horrelako arazoren bat suertatuz gero, bi egunetan zaldi guztiak txertatuko genituzke. Ez dut uste Andaluziako hona etor daitekeenik. Zabarkeria arazoren bat suertatuz gero, agian. Edozein modutan, nahiko zaila da hori gertatzea. Andaluzian ehundaka zaldi dago norenak diren, zein aita edo ama duten etab. inork ez dakiena. Hemen horrelakorik ez da gertatzen.

Perineumoniarena bestelako arazoa da. Perineumonia oso diagnostiko errazeko gaisotasuna da, behin ikusiz gero ez dago inolako zailtasunik gaisotasuna diagnostikatzeko. Nik gure bailaran ez dut gaisotasun hori azken 30 urtetan ikusi. Bestalde, gaisotasun hori duen behiren bat aurkituz gero, akabatu egin behar da eta bere inguruan egon diren animaliak ere bai, nahiz eta gaisotasuna ez izan. Arau hauek betez gero, ez dago arazorik.

*Ignacio Bengoa
Arrasateko Albaitaria*

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Arrasate


u
t
o
e
s
k
o
l
a



Klase
praktiko
eta
teorikoak

Olarte, 30
79 89 89

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

ESTETIKA ETA LURRUN ZENTROA

Miren Arrieta

Puntako tratamenduekin: Zelulitisa eta argaltzeko sistema.

Aurpegiko lifting ez-kirurgikoa.

Gainera, estetika-zerbitzu zabala.

Zatoz eta kontsultaiguzu

Zerkaosteta 12, Arrasate Tfnoa: 79 00 35.

Trapo's

Uribe auzoa 2, Tfnoa: 79 83 38
ARRASATE

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

Eslu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

LILURA

-ek
zeure moda
diseinatu
eta sortzen laguntzen
dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE

VE ECUADOR

Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
Arrasate

J. R. Galarza Arrazola

Kirurgia ortopedikoa eta traumatologikoa

Hasi: Irailaren 5ean

Kontsultak: astearte eta ostegun arratsaldetan

Ordua: aurrez eskatuz

San Vicente Ferrer 4 behea. Esk. 79 27 67 Arrasate

Arrasatearrok adi!

ARGA altzariak

eraberritze-obrak direla eta, beherapen handiak
prezioetan

Zerkaosteta 15, Tfnoa: 79 07 76 Arrasate

RAFAEL LORENZO

MEDIKU

ODONTOLOGOIA

Zarugalde 3, 1. B.
Tfnoa: 79 35 80
ARRASATE

**LASTER
ZUEKIN**

K
L
I
N
I
K
A

D
E
N
T
A
L
A

prentsaren begia

OSTIRALA 15

CORREO: "Arrasate, Eskualdeko osasun-zentroa kokatzeko Osakidetza erdiguneko orube bati buruz egindako eskaria, aztertzen ari".

DEIA: "'Ekekei' taldearen antzerki-emanaldia".

DV: "Garibaiko parkea penagarri, zorua jasota duelako".

EGIN: "Euskara Batzordea 'Jokin Zaitegi-ri' omenaldia prestatzen ari da".

LARUNBATA 16

CORREO: "'Arte-Hamabostaldia'-ren aurkezpenean 'lanerako esparru amankomuna' erreibindikatu".

DEIA: "1989an hildakoak gogoratuko Besaiden".

DV: "Arrasate Atletiko Taldeak Bartzelonatik informazioa ekarri atletismo-pistei buruz".

EGIN: "'Arte-Hamabostaldia' bertako artistek erakusteko aukera"

IGANDEA 17

CORREO: "Arrasateko Udalak hurrengo astean zehar egingo 50 pertsonaren hautaketa eta aldi baterako kontratazioa".

DV: "Euskararen erabilera bultzatzeko sensibilizazio-kanpaina".

EGIN: "Gurea Zinema lehen mailako asistentzi zentroa".

ASTELEHENA 18

CORREO: "Gaur eztabaidatuko Arrasateko Udalak Osakidetza-ri lagako dion lehengo Gurea Zinema orubea".

ASTEARTEA 19

CORREO: "Arrasateko Udalak ez du baztertzen Altamirako etxebizitza batzuk alokatu ahal izatea".

DEIA: "Arte-Hamabostaldiko ekintzak areagotu".

DV: "Deba Garaiko Udal Elkartearen Uren Kontsurtzio Bakarra-ren gaia aztertzen ari".

EGIN: "Azken atxilotetak direla eta, aurrera darraie protesta-ekintzak".

ASTEAZKENA 20

CORREO: "Arrasateko 40 familiak Pobretasunaren aurkako Plan Bereziaren barruan zenbait dirulaguntza jaso".

DEIA: "Altamiran 390 eskari babes ofizialeko 41 etxebizitzetarako".

DV: "Udal aurrekontuak 150 milioiko aldaketa izango".

EGIN: "Guardia Civil-ak astelehen goizaldean Arrasaten beste bi pertsona atxilotu"

OSTEGUNA 21

CORREO: "Bigarren eztabaidatuko Arrasaten lurrazpiko bi aparkamendu eraiki eta ustiatzeko lehiaketak deitu".

DEIA: "Gurea Zinema Osakidetza eskaini, erabil dezan".

DV: "Ferialeko pilotaleku estaliaren obrak, Foru Aldundiaren subentzioaren zain".

EGIN: "Mendiko Nekazaritza-planaren barruan, zenbait proiektu onarturik".

Usteak uste...

Zinematik irten eta, oso berandu ez izan arren, ilun zegoen. Zorua bustita. Iturriotzetik behera Portaloiorantz abiatu eta, Portaloian bertan, manifestazioa. Hasierako zurrumbiloiaren ertza kasko laranja alde batetik bestera eta pankarta zabala-aren atzean zegoen jende multzoa. Une batez isiltasuna. Kale erdian gure alkatea eta ertzaina berba egiten. Haserre ziruditen. Ertzainek Montenerantz egin zutenean oihu sarkorra atzetik "Zuek-ere-txakur-rak-zarete"!, behin eta berriro. Ge-roago egurra. Harrikadak, ke poteak, barrikadak, lasterketak...

Aspaldiko partez ikusi ez dugun haserre kaleratu da Mondragoen. Orain bi astebete borroka armatua zela medio Arrasatek 15 preso zituen Espainiako gartzelatan barrena sakabanatuta. Bi astetan bost gehi-ago sartu dituzte, haugariko hiru oso gazteak.

Nazio Askapenerako Euskal Mugimenduaren inguruko taldeek gogor erantzun dute.

Kaleetan giro hori bizi izan badugu, eguneroko gauzak ez dira, haatik, gelditu eta Udala da horren lekuko. Opor osteko transizioa oso laburra izan da eta dagoeneko burubelari ari da Udalbatza aurrekontuei egin behar zaizkion aldaketak erabakitzen. Dirudienez, aldaketarik azpimarragarrienak azpiegitura sendotzeko eta enplegua sustatzeko egingo dira. Dena beharko da.

Joxe Aranzabal

ENARA
OSAGIRRIAK




Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoc: 79 62 32



Zubia eta
OSO GAUZA
BEREZIAK

Zerkaosteta 8



PEÑACOBAS

Auto-Eskola

Zarugalde, 46
79 14 01

ARRASATE

S. Migelak Garagartzan

Aurten buzkantzak bai, baina ardikirik ez da emango

Aurtengo S. Migelak heldu dira Garagartzara. Beste urtetan moduan, aurten ere, herri bazkarian buzkantzak emango dira. Iaz 350 Kg buzkantz banatu zen. Aurten, ordea, ez da ardikirik banatuko iaz moduan -6 ardi. Antolatzaileen hitzetan, ardi-kienak izugarritzko lana eman izan die. Ikusita gainera, jende askok jan eta gero, alde egiten zuela, ez duela merezi erabaki dute.

Horrez gain, aurten Udalaren dirulaguntza 300.000 pta.ra bikoiztu denez, auzoko dendarietak ahaztu barik, ez dute aurrerantzean ardikiaren banaketarekin ateratzen zuten diruaren beharrik.



Aipatzeko, 1969an jausitako arte handiaren oroimenez beste arte arbolatxo bat landatuko dela. Ondo pasau!

■ Txalaparta ikastaroa

Urriaren 21etik abenduaren 30a arte, Txakun taldeak (Kepa eta Arantxa) txalaparta bigarren ikastaroa emango du, 15 laguneko bi txandatan banaturik. Horretarako, 144.000 pta.ko aurrekontua onartu du Arrasateko Udalak, lehenengo ikastaroak edukitako harrera ona baloratuz.

■ Rock taldeentzat lokala

Gazteria Batzordeak, herriko rock taldeei entsaiatzeko lokala uztea erabaki zuen, astelehen arratsaldeko Gobernu-Batzordean. Berri ona, beraz, Arrasateko zortzi rock taldeentzat. Lokala, Muskolako Epeleko ur-depositu zaharrean dago kokaturik, eta aurretik zenbait konponketa egitea erabaki dute.



“SS-77”, Euskara eta rocka

Orain hilabete batzuek elkartu ziren Andoni, Patxi, Iose, Piraña eta Iñigo. Helburua, ondo pasatzea, gustokoa duten musika sortuz.

Hasierako oztopoak gainditu eta gero (lokala, ekipoa...), uztaileko zortzi abestiz osatutako maketa kaleratu zuten: guztiak ere euskaraz.

Pozik agertzen dira orain arte egindakoarekin. Etorkizunari begira, beraien buruak ahalik eta jaialdi gehienetan aurkeztea espero dute. Hasteko, larunbat honetan Azpeitiko gaztetxean izango ditugu, 10,30etan. Eta gero, gerokoak.

X. GOROSARRI eta M. L. TROJAOLA

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

Erreumatismo handigarriak (erreuma-artritis, espondiloartritis, lupusa, hezueria...) Hezurretako gaixotasunak (Osteoporosia, osteomalacia, pagets) Artrosia, lumbagoeriak, ziatikak, garondoeria, etab...

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxebea. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67
San Jose Policlinica. GASTEIZ Tfnoa: 945-14 09 00

Obea

**Ate automatikoen
ezarpena
Konponketak
Berriztapenak**

Galdetu prezioak

**IGONGAILUEN
MANTENIMENDUA**

Jose Luis Iñarra, 22-behea
Tfnoa: 79 12 08



Atxiloketa gehiago Arrasaten

Istilu gogorak egunotako mobilizazioetan

Larunbat gauean Irungo mugan gertatutako ondotioz, igande goizez Goardia Zibilak Rafa Etxabe eta Auxi Salaberri atxilotu zituen. Astelehen goizaldean, izatez oñatiarrak baina Arrasaten bizi diren M^a Angeles Ruiz eta Jose Enrique Anduaga izan dira Goardia Zibilak eraman dituenak.

Atxiloketak gertatu orduko hasi ziren protestak. Igande arratsaldeko manifestaldian 600 pertsona inguru bildu ziren. Alkateak tentsio handiko elkarrizketa izan zuen Ertzaine-

kin. Manifestaldiaren ondoren, istiluk: Kotxe zeharkatuak, suziriak, Casa del pueblori erasoak, Banco Hispano-Americanoko kristal hausketa... Istiluk 11ak arte luzatu ziren.

Astelehenean 300 bat pertsona irten ziren kalera, eta berriz ere istiluk: Bi kamioi gurutzatu zituzten, gomazko pilotak, korrikaldiak...

Gertatutako ondotio bezala, Gipuzkoako PSOEk ohar bat kaleratu du Ertzaintzaren jokabidea salatuz. Beraien ustez, ez zuten Casa del pueblo behar bezala babestu.

TU-Lankide zuzendari bila

Juan Ignacio Mora Madrilera joan denez, zuzendari bila ari dira Otalan. Euskara eta ingelesaren ezagutza eskatuko da, aldizkariak gain, zuzendariak Ikasbideko harreman publikoen ardura hartu beharko du eta.

Lehenengo aukera Lan Kide Aurrezkikoei emango zaie, akordio interkooperatiboaren barruan. Inork aterako ez balu, orduan deialdi publikoa egingo litzateke.

Lau izan dira TU-Lankidek orain arte izan dituen zuzendariak, D. Jose Maria Arizmendiari (1960-76), Juanito Leibar (1976-84) Jesus Ginto (1984-88) eta aipatutako Mora (1988-89).



Anboto

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Salgai edo alokatzeko dauden etxeak, Leintz bailara eta Oñati aldekoak batez ere, behar ditugu Anboto Inmobiliarian.

Inmobiliario propietatearen agenteak, inmobiliaria honetan egindako salmentak eta kontratuak garantizatzen dira.

FIDA ZAITEZ

Iturriotz kalea, 11. Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE

Zubizarreta Tailerrak



Gipuzkoa Etorbidea 22,
Tfnoa 79 15 65



ARQUERO
Aniak
ERAIKUNTZAK

Araba Etorbidea 40, Behea
Tfnoa 79 01 51 Aretxabaleta



Takolo zikinkeriaz beteta

Contenedores Otxoa Udala presionatu guran

Aretxabaletarako bidea hartzen baduzue Takolo ingurua zikinez beteta ikusiko duzue.

Udal Zerbitzu teknikokoek esan digutenez, Mondragoeko udalak kontratua dauka Contenedores Ochoa enpresarekin herrian egiten diren zabor industrialak dauden hiru isurtegiatara eramateko. Aipatu isurtegiak hauek dira: Besaide (Meatzerreka auzoko Kostobal inguruan), Muxibar eta legalizatze bidean dagoen Kobate ingurukoa.

Besaide isurtegian lurrak, zaborrak eta isuri industrialak bota ahal

dira. Muxibar eta Kobaten, berriz, lurra eta zaborrak. Dirudienez, edukiontzi-konpainiak Muxibarren botatzen hasi ziren suak hartu arte. Udalak, ondorioz, itxi egin zuen.

Gauzak horrela, Contenedores Ochoakoek edukiontziak Takolon uzten hasi dira, zaborra non bota ez dutela esanez.

Antza denez egoerari irtenbidea emateko Udalak zenbait gairen (kartoia, egurra...) erretze kontrolatua baimen dezake Besaideko isurtegian, Epelekoa lanean hasi bitartean.

Ferialeko pilotalekua

Hasieran Ortega arkitektoaren proiektua onartu bazen ere, 330 milioiko aurrekontua garestizat jo du Udaleko zenbait alderdik. Momentuz, HB eta PNV proiektua mantentzearen alde azaltzen dira; azken erabakia hurrengo plenoan hartuko da, aurrekontuen aldaketa aztertzen denean, alegia.

Gureako orubea Osakidetzarentzat

Astelehen arratsaldeko Gobernu Batzordean, Osakidetzari Gurea zinemako orubea eskaintzea erabaki zen, bertan Lehen Asistentzi Zentrua eraikitzeko. Dena den, egitasmoa oraindik ere biribildu beharra dago, eskaintzaren baldintzak aztertuz: Zenbat solairu izango diren Osakidetzarentzat eta zenbat Udalarentzat, lurrazpiko aparkalekuak izango dituen...

JAIOTZAK

Moreno Etxebarria *Julen*.

Irailak 8an.

Diego Jauregi Aranburu *Markel*.
9an.

Alonso Perez *Naroe*. 9an.

Valada Alvarez *Iratxe*. 10ean.

Vinagre Davila *Tania*. 10ean.

Alonso Elorza *Ainhoa*. 11an.

Garcia D'Sanca *Jokin*. 16an



comercial
SUMOFIC, S.A.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

**ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK,
STANDARak ETA NEURRIRA.**

DATU-BASEAK

OFIMATIKA

MANTENU-ZERBITZUA

***Ekipamendu eta programak**

***Telemandua**

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR



Erdu kultur elkarteak ondasunak banatu

Erdu izenarekin HABEren errejistroan zeuden bi euskaltegi-tako irakasle guztiak irten egin ziren ikasturtearen amaieran eta aurten irakasle horiek ez dute klaserik emango ez Arrasaten, ezta Bergaran ere.

Uztailaren 26an egindako bileran Erdu Euskal Kultur Elkartearen ondasunak banatzea erabaki zuten aipatu irakasleok: 9 milioi pezeta Bortziri, Malarreka, Errioxa eta Ifarraldeko AEKren artean. 4 milioi AED (2), Beinke (1), Idolaz, Jardun... euskara munduan ari diren taldeentzat. Erdiko kaleko pisua eta Bergarako AEKri eman zizkioten bitartean, Sokoia kafetegi gainekoa AEDri.



Arrasate hobeto ezagutzeko

Diputazioak 4 milioi eman lau azterketa sakon egiteko

Urriaren lehenatik hasita, Mon-dragoeko udalak lau azterketa sakon egingo ditu, honetarako Gipuzkoako Diputazioaren "Udal mailako ekonomi garapenerako ahalbideen azterketak" programa aprobetxatuz.

Lehen, bigarren eta hirugarren sektoreak aztertuko dira, eta baita eskolatik kanpoko ekintzak ere. Lehen hirurak German Berezibar, Koldo Azkoitia eta Kontxi Maleten zuzendaritzapean egingo dira. Lau-garrena Udal Idazkaritzatik zuzen-duko da. Diputazioak 4 milioi pta.

emango du, pertsonal kostoa estaltzeko. Gainontzeko gastu adminis-tratiboak Arrasateko Udalaren kontura joango dira.

Hilaren 21ean azterketa hauek egingo dituzten lau teknikariak hartzeko frogak egingo da. Aukeratuak urriaren batean hasiko dira lanean.

Lanaren iraupena, sei hilabete. Azterketa hauetatik aterako diren emaitzak etorkizunean sektore horietan egin beharreko inbertsioak eta lanak ondo bideratzeko erabiliko dira.

comercial
SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab.etan.
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**

■ Erromara bidaia

Gesalibar auzoan jaiotako Juan Pedro Bengoa pasionista beatifikatu egingo dute datorren urriaren 1ean, igande goizez, Erromako San Pedro eleizan.

Hori dela eta, bi bidaia antolatu dira. Bata hegazkinez, Irailaren 30ean irten eta lau egun iraungo duena. Bigarrena autobusez, irailaren 26an hasi eta 11 egunez luzatuko dena.

Momentuz 124 bat pertsonak eman dute izena. Zuek ere apuntatu nahi izanez gero, dei egin 272600 telefonora.

■ Arrasateko Udalaren zerga kobraketa

Arrasateko Udalak herritar guztiari jakin erazten die 1989ko hirilur eta landalur kontribuzio, merkatal eta industrial iharduera, eta profesional eta artisten baimen fiskalaren ordainagiriak ondoren azaltzen diren epeetan kobratuko direla:

— Borondatezko epea: Irailaren 18tik, azaroaren 24era.

— Exekuzio epea: Azaroaren 27tik aurrera, % 20aren gainkarguarekin.

Ordaintzeko tokiak, edozein banketxe eta Otalora 31n dauden bilketarako Udal bulegoak. Zalan-tzak argitzeko, berriz, Kontuhartzaitzako bulegoetatik pasatu.

■ Urriaren 1erako, 50 lanpostu

Arrasateko Udalak, sei hilabeterako kontratatuko dituen 50 langileak urriaren 1ean jarri nahi ditu lanean. Aldez aurretik, gero aukeratuak izango direnak froga jakin batzuk gainditu beharko dituzte hurrengo egunotan.

T x a n d a k a

Eman zeurea kanpaina

-Gurasoen aurrean propaganda egin beharra dago akordatu eragin beharra dago seme alabei euskera erakutsi behar dietela?

-Hau da ona, hau; honetaraino heldu behar izatea ere gure eskualde honetan!!

Honelakoak eta antzekoak pasatu zaizkit burutik eta entzun ditut nire inguruan euskararen transmisioaren aldeko kanpaina hau dela eta.

Komunikabideetan eta papere-tan zifrak eta arrazonamenduak zientoka ematen ari direnez egunokaz, ez naiz ni hari beretik joango. Orain baino lehen gure artean gai honetaz esandako batzuk erakutsi nahi dizkizuet, esanguratsuak erizten zaizkidan aipamen batzuk orri-ratu.

Jakin badakidan arren beren seme-alabei euskera erakutsi/erakusten/erakutsiko ez dieten bikote gutxi irakurriko dituztela ondoko poema, bertsoa eta zita hauek, ez da gutxi izango egingo dugunon auto-konbentzimendua handitzeko balio badute, geuk ere -egileek bezalatsu- zabal dezagun gure inguruan biziaren eta orekaren mintzoa.

1. "Pertsona izateko modu duin eta orijinal bat da euskaldun izatea".



Julen Arejolaleiba*

(Txepetx)

2. "Anai-arrebak, entzun ene aho-otsa izaite bat ez daike hezur hutsez osa; herria da gorputza, hizkuntza bihotza; bertetik berextean bitarik bakotxa, izaite horrendako segurra hil hotza".

(Xalbador)

3. nere amari bere gurasoek NERE arbasoek eman zioten kultura tankera euskera

sakel kontuagatik edo beste

nere amak eman ez bazidan

esango nuen

nere ama ema-galdurik galduena zela eta betiko madarikatua berea etzen

gauza sakratu batekin trafikatu zuelako

eta nitaz urdakume zurtz bat egin zuela

nere gogoia gaiztotuaz bizitzaren bideetarako.

(J.A. Artze)

(*)Eskoriatzako Irakasle Eskolako irakaslea

ATOR



PEUGEOT TALBOT

INDAR DINAMIKOA

P-405 DIESEL eta TURBO-DIESEL INTERCOOLER BERRIA

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekoa 2, Tfnoa: 76 23 75

S. Ignazio eguna
Kanpantzarren
 Bizkaiko Diputa-
 zioak ordainduta-
 ko obrak (2
 iturri, hamar bat
 erretegi, jarleku
 eta guzti) amaitu
 berri, Elorrio,
 Elgeta eta
 Arrasateko jende
 ugari bildu zen
 abuztuaren 31an
 Kanpantzarko
 pagadira.



Epelde

**Jesus Dominguez eta Mari
 Jose Paunero** gazteek

Musakolako S. Isidro eliza
 aukeratu zuten ezkontzeko,
 ekainaren 17ko larunbatez.
 Bejondeiela, gure zorionik
 beroena.

Aipa dezagun, bide batez,
 joan den asteko eztei-
 argazkia ere Epelderena zela.
 Barka nahastea.

Astelehen goizez,
 Aseguro-kooperatiba
 ezberdinetako **21**
japoniar izan
 genituen bisitari
 Arrasateko Lankide
 Aurrezkian.
 Beraiekin izan ginena,
 eta helburutzat
 Arrasateko
 kooperatiben
 "miraria" ezagutzea
 zutela aipatu ziguten.



izen propioak

Bixente Senar, 35, ia bederatz
 urtez Espainiako gartzela desberdi-
 netan egon ondoren, joan den abuz-
 tutik asteburuetakoa baimenaz goza-
 tzen hasi da. Larunbatetan irten eta
 igande gauetan itzultzen da Basauri-
 ko espetxera. Bixente Arrasate
 Kooperatiban zebilen lanean. Gar-
 tzelan Magisteritza egin du.

Jose Antonio Villar, 50, Arrasa-
 ten bizi den ofatarrak Dauphineko
 Unibertsitateko François Mariet
 komunikabide buruarekin akordioa
 egin du Mondragoen ikusentzunez-
 ko komunikabideei buruz egingo
 den ikastaroa zuzentzeko. Villar
 musikazale ezaguna da eta komuni-
 kabideetan aditua.

Anton Egia, 40, Gasteizen bizi
 den basauritarra da abuztuaren 1etik
 Arrasateko Ertzaindegiko buru.
 Anton sarjentu nagusia da eta Jose
 Ramon Lekuona ordezkatu du. Mai-
 su industrialia, Petronor eta Eguren
 Kone enpresetan lan egin izan du.

Jon Sarasua, 23, bertsolari are-
 txabaletarrak, kazetaritza bukatuta-
 koan, Eusko Jaurlaritzaren urtebete-
 ko beka irabazi du kazetal hizkun-
 tzaren inguruko ikerketa egiteko.
 Jon Soziologia ari da ikasten orain.
Argian, Euskadi Irratian eta Punto y
Horan egin izan du lana. Azken
 bertso txapelketan finalista izan zen.

Luis Mari Sotil, 36, Bergarako
 Udaleko zinegotziak utzi egin du
 kargua, bere partiduak -EA- HBre-
 kiko akordioa apurtzeko erabakia-
 rekin ados ez zegoelako. ESTEn i-
 kasi zuen informaltika. LKAKo
 informatika sailean dihardu. Hi-
 rigintza batzordeburua zen eta Man-
 komunitatearen lehendakariordea.

Irakasle Eskola Eskoriatza

1989-1990 ikasturterako inskripzio-epaia irailak 26 arte zabalik dago

Eskola honek, karrera barruan, **Magisteritza** eta **EGA** tituluez gain, **Kon-
 tsumo** eta **Soziolinguistika** arloetan ere diploma berezia lortzeko aukera
 eskeintzen du

Informazioa: Irakasle Eskola. Eskoriatza. Tfnoa: 79 04 40

**ARRASATE
 PRESS**

astero zuekin

Hamabostaldia, ezusteko atsegina

Arteaz hitz egiten dugunean, gutariko askori pintura eta eskultura diziplinak datozkigu gogora. Arrasaten, hil honen hamalautik 30era bitartean, herriko hamazortzi gaztek egiten duen artelana ikusteko aukera izango dugu, Ospitale Zaharraren egoitzan antolatu duten Arte-Hamabostaldiaren barnean. Gazte hauek, artelan hitzaz, pintura eta eskultura baino askoz eremu zabalagoa adierazten dela jakin erazi nahi digute arrasatearroi, bidenabar beren lana ezaguteraziz.



Hona hemen 18 artisteetako batzuk

Aspaldiko asmoa

Gaur egun herriko lorategi eta txokoetan aurki ditzakegun eskulturak, herrian lau urtez burutu izan diren eskultura simposimen ondorio ditugu. Eskultura simposium hauetan atzerriko eta Euskalerriko eskulturgile ugari parte hartu izan du, herria nolabait edertuz. Edozelan ere, gai honek herriko zenbait gazterengan nolabaiteko kezka piztu zuen, garbi ez ikustean kanpoko jendea herrira ekarri beharrezko arrazoia. Horrez gain, artelana eskultura baino askoz zabalagoa izanik, simposiuma eskultura ez den arte eremu batzutarazabal zitekeela ikusi zuten. Gauzak horrela, simposiumari nolabaiteko alternatiba aurkitu nahian, beren esfortzu eta gogoak biltzen hasi ziren; edozein modutan ere, gauzak garbi ez izatean asmoak baino ez zirela izan duela bi urteko saio haiek, aurtengo urtea heldu arte.

Urte hasieran, Udaleko zenbait kiderekin egonik, Udalean ere simposiumari nolabaiteko alternatiba aurkitzeko nahiarekin topo egin zuten artistek; beraz, ahaztutako ideia berrartzea erabaki eta simposiuma-

rentzat alternatiba egokia izan zitekeena garatzen hasi ziren. Lan egiteko gogo zuen edonor taldean hartzeko prest agertu diren artista hauek, bost hilabetetan zehar asmoa errealitate bihurtu eta proposamen serioa aurkeztu zioten Udalari. Udalak proposamena begi onez ikustean, urteko aurrekontuetan simposiuma antolatzeko gordeta zuen konfusaila hamabostaldiari eskaini zion.

Lan guztiak beren esku

Behin Udalak hamabostaldiaren egitasmoa onartu ondoren, asmoa errealitate bihurtu beharra zegoen. Hamabostaldia burutzeko ospital zaharreko lokalak egitasmoa aurkeztu zuten hamazortzi gazteen esku jarri zituen Udalak. Berauek, gazteek eskatutako baldintzak betetzen dituzte, erdigune inguruan egotea eta erakusketa eta tailerrak martxan jartzeko aproposak izatea, alegia. Eraikuntza hau, lau urtez utzik egon ondoren, benetako egoera tamalgarrarian aurkitzen zen berau garbitzen, margotzen, zakarrak kentzen etab. etan hilebete t'erdi eman dutelarik, Uztailaren erdialdetik hamabostaldia hasi den arte, hain zuzen ere.

Honez gain, arte lanak eskegitzeko panelak ere beraiek egin behar izan dituzte eta hamabostaldiak dirauen bitartean behar izango dituzten materialak erosi. Lan egin ahal izateko behar dituzten lehengaiak erosteko Udalak 1.600.000 pta. aurreratu die artistei eta 200.000 pta. garbiketa-gaietarako. Udalari laguntza hau eskertzen dioten arren, behar besteko laguntza ez dutela lortu salatzen duten gazteek, "kanpotik norbait etorri gero, dena prest izango zukeen, guk, jakin bagenekien dena geuk atondu beharko

Hamabostaldiaren antolaketa eta egokitze lanak ideia bultzatu duten artisten esku egon dira

genuela, baina jaso dugun baino laguntza gehiago izan genezakeen" diosku berauetako batek, "Jendeak hona sartzeko erreparorik izan ez dezan, Kalistruak desinfektatzeko eskatu genien. Sarritan eskatu ondoren brigada azken bi egunetan baino ez da etorri kalistruak ureztatzera". Udalean, berriz, artistek zer nolako lokalak jaso behar zituzten bazekitela adierazi digute, nahiz

arrazoa guztiz ez dieten kentzen.

Arte-hamabostaldia martxan

Asmoa errealitate bihurturik hilabete honen hamabostetik aurrera arte-hamabostaldia martxan dago herriko ospital zaharraren egoitzan. Bertan herriko hamazortzi gaztek sei tailer desberdinetan dihardute lanean. Tailerrak, zeramika, bideoa, grabatua, pintura, argazkigintza eta eztabaida tailerra ditugu eta hamabost egunetan zehar, goizez hiru orduz eta arratsaldez beste hiru orduz, beren artelanak burutzen ikusi ahal izango ditugu. Hauetako tailer batzuetan burutuko diren lanak ezagunak izango ditugu, argazkiak edota zeramika esaterako, beste batzuk, oster, grabatua berauetako bat aipatzearren, nahiko ezezagun eta agian bitxia suertatuko zaizkigu, berauek egin ahal izateko behar izaten diren prozesu bitxiaren ondorioz.

Honez gain, tailerrak martxan dauden bitartean, artisten lanak Kalistruetan antolatu den erakusketan daude ikusgai. Esan beharra dago, norberaren jakinmina edota jakingurara asetzera, bai erakusketara eta bai tailerretara edonor joan daitekeela. Hamabostaldia bukatu ondoren be-

1.200.000 pta. emango dielarik artistei eta gazteek arte-lanak. Edozein modutan ere, diruarena ez omen da izan hamabostaldia antolatzeko izan duten arrazoi bakarra. Hauetariko gazte batzuk, beren lanak erakusketa

gero, gu hor gaudela jakingo du"

Etorkizunerako asmoak

Edozein modutan ere, hamabostaldiari iraupena eman nahi diote. Datorren urtean, beharbada kanpoko



Jadanik astebate daramate lanean

batean izateko aukerarik ez dute inoiz izan. Hamabostaldi honek beraz, beren buruak ezagutarazteko aukera bikaina eskaintzen die. Bes-

jendea ekarriz antzeko zerbait egitea aurrizkusten dute. Bestalde, herrian arte tailer iraunkorra sortzeko asmoa agertzen digute. Tailer honek, arte munduan lanean diharduen jendea biltzeko balioko luke, bertan, lasai lan egiteko aukera izan dezaketen bitartean. Dena dela, nolako tailerra nahi duten, zein izango den bere antolamendu, Udalak lokalak utziko dien, dirulaguntzaren bat eskuratze-ko aukerarik izango duten, etab. luze bat erabakitzeke dago. Hala ere, tailerra, profesionalki edota semiprofesionalki arte munduan aritzen den jendeari zuzendua legoke. Hau da, ez dute lanerako edo aisialdirako tailer edota antzekorik sortu nahi, lan egiteko leku apropos bat baizik.

Udalak 1.200.000 pta. emango die 3 argazki, 2 pintura, labor metraia bat, 2 zeramika-lan, 3 grabatu eta katalogo baten truke

ronek iraun duen bitartean gazteek egin dituzten hiru argazki, bi pintura, bi zeramika lan, labormetraia bat, erreportaia grafiko bat eta hamabostaldiaren inguruko katalogo bat erosiko ditu Udalak. Egia esan truke antzeko bat izango da, Udalak

talde, jendeak hor daudela eta lanean dihardutela jakin dezan plataforma ezin hobea eskaintzen die hamabostaldiak. Bideo tailerrean lanean diharduen mutil batek zera zioen "guri hamabostaldia oso mesedegarri suertatzen zaigu, era honetan norbait-ek bideo lanen bat egin nahi izanez



BIONAS


Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobe-
bekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezen.

Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA

Errentagarria, zergaringarria eta zure neurrikoa. Etorkizuna duen
dirua.

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA

Oso interesgarria eta zergaringarria. Seguru hazten den dirua.

AURREZKI-PLANA

Interes handia aurrezki txikiarentzat. Piskanaka gehiagotzen den di-
rua da.

Albina Madinabeitia: "Bibolina beti izan dut esku artean"

Albina Madinabeitia gure herrian izan den bibolin jole handienetakoa dugu. Herritik oso gaztetxoa zela alde egin behar izan zuen ikasteko eta jubilatuta ondoren itzuli. Gaur egun 80 urte ditu eta oraindik Arrasate Musikalen irakatsi eta bertako orkestran jotzen du. Bizitasunhandiko emakumea, Orkestrako zuzendariak kontatu digunez, ez du inoiz entsegu bat ere galdu. Gaurko honetan denok entzunez behintzat ezagutzen dugun emakume honekin hitz egin nahi izan dugu.

—Arrasate Press: Noiz hasi zinen bibolina ikasten? Zergatik bibolina eta ez beste instrumentu bat?

—Albina: Egia esan ez dut gogoratzen noiz hasi nintzen bibolina ikasten. Gurean, aitak musikarako zaletasun handia zuen eta txiki-txikitandik hasi zitzaidan solfeo eta bibolina irakasten. Aitari bibolina gustatzen zitzaion ikaragarri eta hori irakatsi zidan.

—Non egin zenituen ikasketak?

—Arrasateetik Bartzelonara joan nintzen ikastera. Nire lehen irakasleak Gatzagan pasa ohi zituen oporrrak. Aitak berak entzun ziezadan Gatzagara eramanez ninduen. Irakaslearen ustez, etorkizuna izan nezakeen, ikastera Bartzelonara edo joatekotan. Garai hartan oso gaztetxoa nintzen, zortzi bat urte izango nituen, eta jakina hain gaztea izanik Bartzelonara ni bidaltzeko zalantza handiak zituen. Irakasleak, bere etxea eskaini zidan eta hala joan nintzen Bartzelonara. Bertan bost urte pasa ondoren aitari irakaslez aldatzea aholkatu zioten, oso doinu gogorra nuelako. Nahiz eta oso gogorra suertatu, Bartzelonako irakasleari banindoala esan beharrean aurkitu ginon. Ondorengo ikasketak guztiak Madrilen egin nituen. Madrilen ikasten ari nintzela, urtero konserbatorioko lehen saria jasotzen nuen eta behin Sarasate saria ere jaso nuen.

—Hain gaztetxoa izanda, ez zenituen Arrasate, lagunak, familia, faltan sentitu?

—Beno, egia esan bai. Edozein modutan ere, Bartzelonako irakaslearekin Oñatira oporrrak igarotzera

etortzen nintzen noiz behinka, egun horiek familiarekin egoteko aprobetxatzen nituelarik. Hala ere, oso egun gutxi izaten ziren, Udan ere ikasi egin behar izaten nuen eta.

Madrileko garai hartan errezitalak ematen nituen eta birritan Alfonso XIII.aren aurrean jo; hauetako batean Nikanor Zabaleta arpa jolearekin batera.

Garai hartan nire senarra izango zena ezagutu nuen, 23 hiru urterekin ezkondu eta Bilbora joan nintzen bizitzera, bibolina alde batera utzita.

—Edozein modutan ere, beranduago berriro ekin zenion jotzeari, ezta?

—Bai, egia da. Ezkondu eta lau urtetara Gerra hasi zen. Senarra Frantziara alde egin beharrean aurkitu zen. Ni berriz, Bilbon bakarrik geratu nintzen. Gure ezkontza han hautsi zen, gerrek ez dakarte ezer



Albina Madinabeitia

Agian norbaitek zein apala naizen pentsatuko du... baina egia da, jadanik adin honetan niri horrek ez dit axola.

—Jubilatu eta Arrasatera itzultzea ez zaizu gogorra egin?

—Ez, ni oso etxekoia izan naiz beti eta hemen oso harrera ona egin didate denek. Arrasate Musikalen klaseak emateko eta orkestran parte hartzeko eskatu zidaten, beraz, oraindik ez naiz guztiz jubilatuta.

—Zein eritzi duzu Arrasate Musikalez?

—Arrasate Musikalek meritu

"Bibolin-jole ona izateko dohain horrekin jaiotzea egin behar da, nahiz eta asko ikastea beharrezkoa izan"

onik... Gauzak horrela, Turina maisuak Madrileko Orkestra Nazionalan lanpostua eskaini zidan, nik onartu eta gurasoak eta semea hartuta Madrilerara abiatu nintzen. Han bizi izan naiz jubilatuta naizen arte. Oposizioak egin nituen, gaintu eta bertan jo izan nuen hogeitamabost urtez.

—Emakume izateagatik inoiz ez duzu zeure burua baztertuta ikusi?

—Egia esan, ez. Nire bizitza osoan aurkeztu naizen oposizio guztietan lehen postua eskuratu dut.

handia dauka. Do bat zer zen ere ez zekiten haurrek solfeoa, bibolina, pianoa etab. ikastea lortu dute. Bere mugak ditu, jakina, baina meritu handia du.

—Bibolin-jole ona izateko, dohain berezia duzula jaiotzea behar da edo ikastearekin nahikoa da?

—Jaiotzea eta ikasi egin behar da. Bibolin-joleak soinu ona izan behar du. Bibolin-jole ugari dago, jo egiten dutenak, baina desafinatu ere egiten dutenak. Askok ikasi beharra dago, baina dohain horrekin jaiotzea beharrezkoa da.



Martxan daude jokalariek

Rugby denboraldia prest

Larunbat honetan lehen partidua

Larunbat honetan ekingo dio Arrasate Kirolak Rugby taldeak denboraldi berriari. Aurreko urtea ederki amaitu ondoren, bigarren dibisioa dute euren zain. Horrela, zalantza barik etsai gogorrak aurkituko dituzte gure jokalariek.

12 taldek osatzen dute aurtengo liga. Horien artean Atletiko SS, Hernani eta Getxo bezalako talde ospetsuak. Besteak ez hain ezagunak: Fortuna, Atletiko bera-bera, Irun, Eibar, Bilbo, Kakarraldo, Mungia, Elorrio eta Arrasate Kirolak hain zuzen ere.

Pello Hiriarten mutilek badakite lan gogorra izango dutela. Dena den, Iturripe aldera hurbiltzen diren ikusleek seguraski eskertu egingo dute taldeen maila hainbeste gotzea.

Denboraldi berriari begira ez dago nobedade handirik. Gutxi batzuk alde egin dute taldetik. Horien hutsuneak betetzeko, jubenilak eta kanpotik etorritako bi jokalariek: Josu Garai eta Pepe Arregi. Gogo handia berriz ere borrokari ekiteko, baina aipatu beharra dago Iturripeko kirolgunea ez dela gure jokalarientzat aproposena. Beti ere hautsa eta hautsa.

Bukatzeke, esan dezagun joan den larunbatean jokatu zutela lagunarteko azken partidua, Eibar taldearen aurka. Orain hasiko den denboraldian arrasatearren etsai izango direnak, 0-8ko emaitzaz nagusitu ziren Iturripen. Ea Mungia-aren aurka hasiko duten ligan gauzak aldatu egiten diren.

Txakurrak eta artzainak


Igande goizez, ardi-txakurrak eta artzainak izan genituen protagonista Oñatiko Santa Luzia zelaietan.

Hamaiketarako sagardoa eta txorixoa gozatu eta gero hasi ziren probak: Zortzi euskaldun, bi kataluniar eta frantses bi "Nazioarteko XXX. ardi-txakurren lehiaketa"n.

Azkenean txapelak ihes egin zuen Euskal Herritik. Irabazlea "Perla", Bernard Lacoste frantsesarena.

Kuriositate bezala, aipa dezagun arrasatearrok behin bakarrik eskuratu dugula lehiaketako lehen postua: 1955ean gertatu zen

Hor Joxe Iturbe eta "Txino" txakurrak osatutako bikoteari esker.



Oñatiko Zelaia jendez gainezka

AUTO-ALDAGAILUAK

ARRASATE

kotxerako aldagailu eta akzesorioak

Tfnoa: 79 61 11 Udala Enparantza (Izarradorrea)

BRANKA JATETXEA

Eguneko menua
eta karta

Zarugalde 1, Tfnoa 79 60 10

podiuma

Ramon Luengo, futbola maite duen gizona

Ramonen ondora hurbildu bezain laster, futbola izugarri maite duela nabari zaio. Gizon zabala, alaia. Astelehena da, eta kiroldegian aurkitu dut orain berak zuzentzen duen Pedrusko Taldeko mutilak entrenatzen.

Bertan utzi ditu jokalaria eta aparteko txoko batean sartu gara, gu biok eta bere seme txikia. "Bederatzi urterekin hasi nintzen futboleant. Tolosatik etorri, eta hemen egin berria nuen kuadrilarekin Zaldibarren apuntatu nintzen".

Urte asko eman ditu Ramonek futboleant; urte asko eta izerdi ugari. "Haur mailan hasi nintzen Mondran jolasten, eta Gipuzkoako txapeladun gelditu ginen. Soldaduskatik bueltan denboraldi bat eman nuen Elorrion, Oregik deitu zidalako. Gero, berriro Mondrara itzuli eta hemen gelditu naiz urte mordoxka".

Hasieran aurrelari bezala aritzen zen, baina "Bombak" taldea hartu zuenean atzelari lanari ekin zion. "Ni baino azkarragoak zirenak zaindu behar, eta noski, askotan ostikoak eman. Baina ez naiz sekula lege txarrekoa izan, eta partiduko hasarreak gero beti konpondu izan ditut handik kanpo".

Anai-arreba asko dira familian eta guztiak ere kirolzaleak. Zazpi mutilak aritu dira futboleant, gehienak Mondrako kategoria ezberdinetan.

Urte asko, partidu asko. Orain, jokalaria izateari uzteko garaia heldu zaionean, oroitzapen ugari eraman-



Asko dira hamalau urte

go ditu berarekin. "Oso pozik nago hemen pasatutako urteekin. Arrasateko futbolzaleak ederki asko portatu izan dira beti taldearekin, eta hori eskertzekoa da. Gainera, zorte handia izan dudala uste dut, hiru aldiz lortu dugulako Mondra mailaz igotzea. Horiek ziren egunak, horiek!. Palmiraren aurkako partidua, Zumarragan Urolari irabazi eta 3. mailara igo ginenean, Galdakaon ere..."

Ramonek ez du tristuraz hitz egiten. Badirudi etorkizunean ere bizi-tza dastatzeko asmoa duela. "Tira, 13 urte daramatzat Fagorren lanean. Eta orain Euskaltegian apuntatu naiz, euskera ikastea behar-beharrezkoa dela iruditzen zaidalako."

Bere semeak harridura erakusten du aurpegian. Seguraski ez du ulertzen zertarako hitz egiten dion aitak grabagailuari. "Gainera, futbola izugarri gustatzen zait eta Pedrusko taldea entrenatzeko aukera eskaini zidaten. Oso gustora sentitzen naiz, azken finean lagun taldea osatzen dugulako jokalariek eta nik".

■ **Mondrak, hirugarrenean bai.**
Ligako hirugarren ihardunaldian bai, lortu zuen Mondrak bi puntuak eskuratzea. Azkoitiko Anaitasunaren aurka jokatutako partiduan izan zen hori.

Aranburuzabalak 42. minutuan lortutako golari esker heldu zen garaipena. Datorren igandean, 3. mailako liderra izango dugu Atxabalpen, Irungo Real Union taldea, hain zuzen ere.

■ **Arrasate Atletiko taldea.**

Bartzelona aldean izan ditugu Arrasate Atletiko taldearen ardurdunak, bertan 1992rako egiten ari diren instalazioak ezagutzeko. Asmoa, han ikusitakoa gero gure herrian aplikatzea.

Bestalde, esan entrenamenduak dagoeneko hasiak direla. Astearte eta ostegunetan, 5,30 etan, eta larunbatean goizeko 10,30etan.

■ **Neskek ligari ekin.**

Pasa berri den asteburuan ekin diote neskek aurtengo futbol txapelketari. Arrasatearrek, Eibar aldetik etorritako Urki taldearen aurkako neurketan 2-3ko emaitzaz galdu zuten. Hasiera eskaxa, baina ea datorren astean Donostian jokatu beharreko partiduan gauzak hobetzen diren.

Denborapasen soluzioak

Aritgrama

Ezkerretatik eskubira eta goitik behera: 4, 3, 4, 3, 5, 2.

Hiztegia lantzen

Karia: Zerbaiten zergatia, kausa.



URONDO elektrizitatea.

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Memesa


79 42 22

Zabor espazialaren kontuak

Kohete eta sateliteen zaborrak azkar metatzen ari dira Lurraren inguruan, eta metaketak erritmo honi eusten badio, astronautentzat arriskugarria izango da espazio librean ibiltzea. Zabor espazialaren zatirik txikienak ere, espazioko jantzia zula dezake. *Sidney van den Bergh* astronomo kanadiarraren esanetan, zabor-kantitatea bikoizten ari da hamar urtero.

Astronomoak ere kezkatu daude arazo honi buruz, Unibertsoko objektu argimotelenak erregistratzeko esposizio luzeko argazkiak egiten direnean, Lurra orbitatzen duten sateliteek arrastoak uzten dituzte. Arrasto hauek hiru argazkitik bat hondatzen dute.

Iparamerikarren misilen kontrako radar-sistemak orbitatzen ari diren 6.000 objektuen jarraipena egiten du. Hauetako %5 bakarrik da



lanean ari diren sateliteak. Besteak, ez dabilzan sateliteak, jaurtigailupuskak, sateliteen leherketan sortutako puskak eta abar dira.

Objektu guzti hauek itxurako tamaina dute, baina *van den Berghen* eritziz badaude beste posta-seiluaren tamaina ez duten 60.000 inguru. Txikiak izanik ere, 30.000 km/h inguruko abiaduraz higitzen

direnez astronautaren jantzia honda dezakete. Uste denez, 2.000. urterako satelite bat urtean txanpon baten tamainako objektu batek joa izatearen posibilitatea %5a izango da. Kalteak oso handiak izan daitezke objektuak satelitearen sistema garrantzitsu bat jotzen badu.

Gero eta maizago gertatzen ari diren sateliteen arteko talkak dira zabor-iturri nagusienetako bat. Iparamerikarrak galaxietako gerrarako egiten ari diren saioek ere zabor-mordoa sortzen dute.

Epe luzera espazioko zaborren pilatzeari ekiditea zaila izango da eta *van den Bergh*ek esaten duen legez "*Ezin dugu dena zurgatzeko gora aspiradore bat bidali eta azkenean Lurrak hondakinen eratzun iraunkorra izango du; Saturnoren eratzunen antzekoa*".

Iñaki Irazabalbeitia

BAZAR
TOKI ON

Elektronika artikuluen salmenta

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64 Arrasate

TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8
ARRASATE

J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA

**Azal, ile eta atzazalaren gaixotasunak
Azaleko alergia**

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otalora Lizenziatua 29, 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE

MARTINEZ
aroztegia

**Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak**

Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

ANDERE

**Bainu eta
sukaldeko
ALTZARIAK**

*Sukaldeko altzariak neurrira egin eta ezarri.

*Lehen mailako elektratesnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurrira ezartzekoak.

*Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe.

*Diseinu altzarrietan trebatuak gara.

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

Maiatz


**ILEAPAINDEGIA
mixtoa**

Elkano, 38 (Musakola)
Tfnoa: 79 58 78
ARRASATE

Greenpeace: Ortzadarraren gudariak

Ipar Ameriketako indioen istorio zahar batek iragartzen duenez, egunen batean, kutsaduraren eta burugabeko esplotazioaren poderioz planeta hau gaixotu eta hilzorian egotera iristen denean, munduko biztanleak denak batera zutituko omen dira eta "ortzadarraren gudari" moduan borrokatuko, planeta salbatu arte.

Greenpeace-ko partaideak hasiak dira dagoeneko borroka horretan eta kide ugari aurkitzen ari direla esan daiteke, bide horretan. Oraingoan, adibidez, musikari multzo handi batek eskaini dizkio bere lanak erakundeari diska bikoitz bat kalera dezan. Hona hemen izen batzuk: U2, Sting, Terence Trent D'Arby, Bryan Ferry, Lou Reed, Eurythmics, Pretenders, Grateful Dead, Talking Heads, Simple Minds, Waterboys, REM, Aswad, Peter Gabriel, Sade, Dire Straits...



Ohi denez, diska honetan dauden kantak musikari bakoitzaren bakar-kako lanean aurrez argitaratuak dira. Baina kasu gehienetan azken ordukoak dira, egin berriak, freskoak.

Bestalde, musikarien zerrendari dagokionez, argi dago ez dela inoiz hain maila altuko bildumarik argitaratu, musikaren adar bat hain ondo ispilatu. USA eta Britainia Handiko musikaren ikuspegi orokor eta gaurkotua.

Eta Ortzadarraren gudariak ugalduz doaz...

SAN SIMON ETA SAN JUDA

Joan zen uda, San Juda. Udako leketan acid, lambala eta bamboleyo artean joan da, joan. Bamekaldeko basamortuan, berriz, ixilpean.

Musika asko entzuten da udan, baina ez da uda sasoi ona musikarentzat.

Bihoa, beraz, uda, San Juda. Eta betor udazkena, udazken on, San Simon.

Mikel Irizar

Connecting cable for R1
Audio signal cable

Remote Control Included with TX-850/TX-830

Hau
zer den
jakitea nahi
ba duzu
etor zaitez
gurera

Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE

J. L. GIRALDO

Laster kontsulta irekiko duela iragartzen du
DIGESTIO-APARATUA

Eguzki Dorrea 2. B
Loramendi 6, 2. B
Argibide gehiago jasoteko (Deitu 79 04 14 Tfnoa.)

AKADEMIA
BASTIDA
INEM-EK HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

MEKANOGRAFIA ORDENAGILUZ
* 250 Pultsazio * Lan administratiboak

TAKIGRAFIA AUDIO
* Ingeles silabiko sistema * 60 ordu
* 100 hitz minutuko

INFORMATIKA
BASIC-COBOL-PASCAL HIZKUNTZA
DATUEN BASEA
ORRI ELKTRONIKOA
TESTUEN TRATAMENDUA

KONTABILIDADEA
* Kontabilitadeko plangintza orokorra
* "Calco" eta "Mecanizado" metodoak
* Errekuperazio klaseak

KLASE BEREZIAK
* OHO * LH * IEE
* INGENIERITZA TEKNIKOA * UBI

HELBIDEA: Ferrerías 44, Arrasate
Tfnoa: 797713

Euskadiko Akademia Pribatuei
elkartutako kidea

Ikasturtearen hasiera

Oporrak bukatu dira eta hona hemen denok lanean: helduok eta haurrak.

Haur gehienek bi hilabetetako oporrak eduki dituzte eta kurtso hasierak, txikiei batez ere, erritmo aldaketa handia suposatzen die: ... lagunekin elkartzea, goizean goiz jaiki beharra, ordutegi estua errespetatzea, irakasle berriak ezagutzea...

Egoera honen aurrean, zein da gure egunkizuna? Kurtso hasiera honetan, nola lagundu haurari erritmoa hartzen, lanean murgiltzean?

“Ziurtasun afektiboa eta autoestimazioa”ren bidean jar-tzea eta garatzea.

Haurrak gure afektua behar du, gure babesa eta inoiz ezin diogu esan: “Ez zaitut maitatuko...”, nahiz eta zigortu une batzuetan.

Haurrak bere buruarengan konfi-



dantza hartu behar du; eta horretarako guk bere lanak (nahiz eta oso sinpleak izan) eta lorpenak baloratzea bide egokia da.

“Nortasunaren hezkuntza”

Haurra baloratu behar dugu baina aldi berean kritikoak izan behar dugu berarekin. Haur eta gazteen pertsonalitatearen garapenerako el-karrizketa eta egiazko kontrastaketa oso garrantzizkoak dira.

Noski, guk helduok gure burua-

rekin exigentzi maila hau dugun neurrian... Exenplu iraunkorraren bidez ikasten bait da...!

“Komunikazioa”

Helduok espazio komunikati-boak ireki behar ditugu:

Haurrekin: Haurrak komunika-tzeko beharra du: bere lanak, harre-manak, arazoak, pozak,... Eta ideia zein esperientzia bat komunikatzen dugunean gure ezagupena argitu, e-estrukturatu egiten da. Beraz, ko-munikazioa gure garapenean ele-mentu garrantzitsu bihurtzen da.

Ahaztu gabe afektibitateko komunikazioak duen garrantzia.

“Jakinmina bultzatzea”

Bizitzarako ikastea interesgarria eta baliogarria dela haurrei jakin araztea denon ardura da, ez irakas-lecna bakarrik.

Klarion taldea

PROMOCIONES MARKULETE, S. A.

NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

- *Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.
- *Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia
- *Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

Pisu gorabeherak

Joan den astean aipaturiko formulatxoak aplikatu ondoren harri-duraz ikusi baduzu zeure pisua uste baino handiagoa dela, tiroidea, hormonak, metabolismoa edo beste gauza asko aurkitu nahi izango dituzu errudun, seguraski. Ba, egia esanda, hormona-arazoengatik sortzen diren loditasunak, obesitate kasu guztien %2 besterik ez dira, eta gainerako %98 kasuak, hartzen diren kalorien eta gastatzen direnen arteko desorekaren erruz sortuak dira.

Gainerako Unibertsoa bezalaxe, giza gorputzak ere Termodinamikako arauak jarraitzen ditu. (...) Nik gastatzen ditudan baino 500 kaloria gehiago hartzen badituz, soberan geratzen diren kaloria horiek ez dira lurruntzen, baizik eta gantz modura gordeko ditut soinean.

Jar dezagun Itziar idazkariaren kasua eredu bezala. Ez du kirolik egiten, 36 urte ditu, 166 zentimetroko altuera eta 62ko pisua: egunero

2100 kaloria jaten zituen eta mantendu egiten zuen pisua, hori bait zen berak behar zuena eta ez gehiago. Baina egun batean, honen jana-riak ugaritu egiten dira, agian nahigabe eta famili arazoren baten ondorioz. Jaten duenean, lasaitu egiten da, berari hori iruditzen zaio behintzat; eta gauza zapoetsuenak ditu atsegin, gainera: txorizoa, urdai azpikoa, txokolatea, jatorduetatik kanpoko zizka-mizkak... Baina pisua gehituz joan zaio poliki-poliki, orain hartzen dituen kaloriak ez bait dira 2.100 lehen bezala, 3.000raino heltzen dira behin baino gehiagotan, eta erretzen ez dituenak gantz modura gordetzen ditu gorputzean, eta loditu egiten.

Beraren senarra, berriz, betidanik izan da lodi samarra. Egun osoa makina baten aurrean geldu, ia esfortzurik egin gabe. Autoz joaten da lantegira, itzuli ere autoz; hori bai, igandetan paseotxo bat ematen du menditik, baina gero jateko gogo

handiagoa nabaritzen du, eta normalean ere apetitua ez du txikia izaten, ba... Gainera, egunero txikiteoa; ostiral edo larunbatetan, lagunekin afaria Elkartean. Oraindik 40 urte besterik ez ditu eta 89 kilo pisatzen ditu, 171 zentrimetroko altuera duelarik.


Jokaera hauek, bikote honen ohiturak, nahiko arruntak dira gure gizartean, hots, gizarte aurrera-tuetarko ohiturak dira. (...)

Pertsona helduen artean ia %40 dira pisu gehiegi dutenak, eta kasu askotan, gehienetan, jaten eta gastatzen diren kalorien arteko desorekarengatik.

Asko jan eta gutxi gastatzen bada, loditasuna dator ondorio bezala. Asko gastatu eta gutxi jaten bada, argaltasuna berri.

Jaten dugunaren eta gastatzen dugunaren arteko oreka mantenduz gero, pisu egokia izango dugu.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*



GIPUZKOA

HERRI Irratia


Neurri egokiak

Bizikleta gainean jartzea ez da nahikoa bizikletan ibiltzeko, oso garrantzitsua bait da belauna ondo ezartzea, neurri egokiz, gero "tendinitisa" eta horrelakoak sor ez daitezen. Beraz, bihoazkizu aholku txiki batzuk:

Bizikleta gainean eseri eta sillina ezarri beharko duzu: oinpuntetik lurra ikutu, eskuak eskulekuan dituzula. Horrela eginez gero, pedal-altueraren neurri egokia lortuko duzu.

Ondoren, zelaren altuera dator: azpian torlojua sakatu edo askatu eta dagokizun neurria aukeratu lehen esandakoaren arabera. Garrantzitsua da oso, ez larregi ez gutxiegi jartzea, osterantzean kaltegarria gerta dakizuke eta.

Eskulekuaren altuera ondo jartzeko, 25 mm.ko giltza askatu, zurezko mailuaz jo, zur zati batez giltza estali eta mailua erabili. (Tailerrean eginez



gero, hobeto). Gero gorpila ankatartean duzula manilarra gora edo behera eroan. Torlojua sakatzeari baino ez eta prest ibiltzeko.

Eta bukatzeko, bizikleta zeure neurrikoa dela jakiteko froga hau

egin: ukondoa sillinean ipini eta luzatu manilar aldera hatzamar puntekin ikutzeko. Ikutzen ez baduzu handixcagoa beharko duzu. Bestela, dagokizuna daukazu.

B. T. T.



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- * *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- * *Fresatzeko makinak*
- * *Zenbakizko kontrola*
- * *Mekanizazio-zentroak*
- * *Tornuak*
- * *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kutxa 95. Telefax: 798097

AUSTIN ROVER




AUTO SAN ANDRES



IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

Onduline



HERIZ
eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1 Tfnoa: 79 23 18ARRASATE

IBARRA Garajea S.A.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua



**ARAMBURU
COTEMAR**
garraio agentzia

Zaldizpe 3, Tfnoak: 79 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

BAKAILO ETXEA


Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE




Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

**Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO
DIZUGU**

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

ETXEBIZITZAK

- Neska bila gabilza pisua osatzeko. Gaueko 10etatik 11etara deitu, astelehenetik ostiralera bitartean. Tfnoa: 79 54 61.
- Gasteizen pisua alogeran ikasleentzat. Interesatuak dei 79 44 41 telefonora.
- Pisua hartuko genuke alogeran Arrasaten. Tfnoa: 11 74 24.
- Pisua osatzeko lagun bila gabilza (gelan bakarrik egongo litzateke). Interesatuak deitu 79 48 11 telefono zenbakira (lan-orduetan) Antoni Kruz edo Karlos Nikolas.
- Neskez osatutako pisu bila ari gara Arrasaten. Tfnoa: 79 52 22, luz.165.. Mertxe. (Deitezokotan, 9etatik 12'30etara edo arratsaldeko 2etatik 5etara bitartean)
- Zarautzen, erdialdeko pisua alogeran (igogailu eta guzti). Irailean 100.000 pezeta. Interesatuak deitu 83 17 67 tfno zenbakira. (Eguerdi aldera edo arratsaldeko 6etatik aurrera)
- Pisua salgai Aretxabaletan, Portasolen. Tfnoak: 79 81 23 edo 79 63 84
- Arrasaten erdialdean pisua salgai, Banco Bilbaon. 115m2, garajea eta trasgela. Tfnoa: 79 51 21
- Pisua alogeran hartuko genuke Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 79 75 42. Goizeko 9etatik 1a bitartean deitu, astelehenetik larunbatera
- Pisua salgai Munar inguruan. 3 logela, egongela, jangela, sukalde, 2 bainugela, berokuntza zentrala, ganbara eta garajea (azken hau aukeran). Goizeko 7etatik arratsaldeko 8ak bitartean 79 39 39 edo 79 13 77 telefono zenbakietara deitu, asteburuan izan ezik.
- Pisua salgai Uribarri kalean. Hall, sukalde, bainugela, 3 logela, egongela, eta 32m2ko terraza. Tfnoa: 70 04 70. Arratsaldeko 6'30etatik aurrera deitu.

- Merkatal lokala esku aldatuko genuke Arrasaten. Salneurria: 900.000 pta. Goizez deitu.
- Pisua salgai Udalpe kaleko 1ean. 1.a ezk.
- Pisua osatzeko nesken bila ari naiz. Maalako errabala, 23-03.ezk. Arrasate. Arratsaldeko 7etatik aurrera deitu.
- Arrasaten pisua alogeran hartuko genuke, irailetik aurrera. Tfnoa: 79 90 36-79 30 01
- Pisua edo gela, etxe konpartituan hartu nahi da errentan. Tfnoa: 79 91 50. Ion.
- Pisua alokairuan behar dugu altzari eta guzti. Tfnoak: 83 18 95 eta 88 45 55.
- Baserria erosiko genuke Arrasate edo inguruetan. Interesatuak dei 79 69 66 telefonora.

LANA

- Neska edo emakume euskalduna behar dugu umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Dei tfno. honetara 79 71 22. Goizeko 9'30etatik arratsaldeko 5'30etara.
- Neska edo emakume euskalduna behar dugu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Dei telefono honetara 79 88 14 gaueko 8etatik aurrera.
- Umezaintza haur-eskolak, bazkal ordu-rako laguntzaile bat behar du. Baldintzak: Umeekin harremanetan ezagupena eta euskeraz hitz egitea. Kurrikuluna bidali. Jose Luis Iñarra Pasealekua 30-32. Epea Irailak 21 arte.
- Emakume edo neska behar da etxeko lanen eta hiru haurren ardura hartzeko. Euskeraz baldin badaki hobe. M. Kruz Rodriguezengana zuzendu. Erguin kalea, 3 bis. 3.a.esk.
- Pertsona arduratsua eta euskaraz dakiena behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanen bat egiteko. Tfnoa: 79 86 86
- Bisuteria salduz lan egin nahi baduzu, deitu 79 68 45 tfno zenbakira.

- Euskaraz dakien emakumea etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73
- Neska arduratsua haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna, informeak ditut. Tfnoa: 79 93 17.
- Neska arduratsua etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- Bi neska behar dira bi etxetarako. Dei ezazue telefono honetara 79 88 14. Arratsaldeko 8'30etatik aurrera.
- Emakumea behar dugu. 8etatik 3ak arte. Premiazkoa da. Tfnoa: 79 34 99

SALEROSKETAK

- Zuri-beltzeko anplagailua salgai (ia berria). Tfnoa: 79 42 16
- Ford Fiesta 1.1 Ghia SS-K salgai. 160.000 pezeta. (aldakinekin arazorik ez)
- Senar-emazte logela salgai egoera onean. Tfnoak: 79 48 92-79 51 50
- Kanadiar kanpin denda salgai (2-3 lagunendako). Merke. Tfnoa: 79 68 45
- 60 W-ko Roland kitarra anplifikadorea salgai (egoera onean). Tfnoa: 79 95 83. Iosu.

DENETARIK

- Paseorako bizikleta salgai. Emakumeentzat egokia 18.000 pta.tan Tfnoa: 79 99 82
- Armonia klaseak jaso nahi badituzu (1,2,3 eta 4.maila) deitu 79 27 88 telefono zenbakira.
- Irungo ikastolan kontratu finkoaz lanean ari den andereño batek Arrasateko edo inguruko ikastoletako irakasleren batekin "permuta" egingo luke. Interesatuak dei 79 26 59 tfnora.

ARRASATEN HILDAKOAK

Elena Yabar Alegria
88 urte. Irailaren 14ean

Vicente Velasco Pineda,
69 urte. Uztailaren 18an

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Arrasate Pasealekua 3 bis, etxebeha.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik



"Hor konpon"-ekuek, soiñu jolien atzekaldien paparra bistan, Alejandro

Alejandro Mendizabal:
Orduko golik polittena porterue eta baloie bixek barruen sartie izeten zuan

"HOR KONPON" KUADRILLAIK FAMOSOENETAIKUE

24 lagun gituan kuadrillan eta betik batabestie lagunketako gertu. Mondrauen ein zan lgo tanborradie Hor konponekuok organizau gaixuan. Eskursiñuek, bizikleta karre-rak eta beste gauza asko be bai.

Txikittetik futbolerako afiziñue

Futbolerako afiziño haundixe naukan bai, bañe deporte danak eitten nittuan. 16 urtekin hasi nitzuan kanpeonatuen CD Mondragonen. Maalako futbol kanpue geuk inagurau gaixuan, lgo urtien azkenak geratu gitzuan eta bigarrenien barrez kapeoi.

Azkoittin zuan azkenengo partidue, 5 minutu falta zittuan partidue akabetako, 1-0 galtzen eta penaltixe geure kontra. "Eibarren etxafleruek botaten hasi zittuan, ia kanpeoi zielakuen." Bañe penaltixoi "Juanito Manukak" despejau eta baloioi neuana zuzenien, hartu naixuan eta ddi-dda, ddi-dda gol, enpate. Gero Zarraoa zaharrak, sartu jua beste bat eta geu kanpeoi. Garizumie zuan eta "Bandiek" urte juzkuan Maalara rezibimentue eitten, bixkarrien ibili ginduan. Ha zuan poza!!

Arora eta Zarautzera jueteko desietan

Orduen serie A, B eta C jeozan, gu serie "C"en geontzan eta distritoka eitten gaixuan Bergako distritue lehenengo: Eibar, Bergara, Aro...

Arora pozik jueten gitzuan, gal-

tzen gauenien inguruko guztiek gittuan lagun eta mozkortu arteko txikiteue gañera euren konture. Bañe behin edo irebazi gaixuan eta inok pe kasuik ez.

Zarautzera be gustora; lagunek gaukan asko han, afaixe eta dana eurok pagetan juzkuen, bertakuek letxe hartzen ginduan. Guk barrez kostunbreik ez eta txakolife eraten hasi orduko mozkortu eitten gitzuan.

Behin eurixe goixen-behien eta Zarautzetik partidue suspendirua eingo zan abixue jaso gaixuan, bañe urtenik gitzela esan eta han presentau gitzuan. Futbolien ez gaixuan ein bañe bai atsalde edarra pasau

Futbola asko aldatute

Goixeko 8etan lanien ekin bier eta 6etarako jueten gitzuan entrenetan, Jantzi bota haundixok eta jota sue futbolien. Baloiek pe joskurak kanpokaldetik jittuen, pixetu be oinguek baño hiru bider geixau bai eta bekoxoi betik markaute ibiltten gaixuan. Halabe, oin baño gol gehixau sartzen gaixuan. Golik polittena porterue eta baloie bixek barrure sartzie izeten zuan.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Plazentziako Zubi internazionala munduko haundixena da bere jeneruan: ezker-eskuma aparkatze-ko tokixa, taxisen paradia, luzia bezin zabala, iturririx... Eztakitt badauzka holako hiru-lau bat record.

Holako zubi bat ezta bi egunetan eitten eta, "Banco Mundial"ai kreditua eskatu eta aillegau ezker, behintzat diru probleman bategaittik obrak geldi zeren. Beti izaten da eibartar auto-batzeileren bat ifion etxeko hautsak harrotzeko prest eta hola preguntau zotsan zubionduan zeuan plaentziar bati:

— Zer, zubi hau geldi daok ala?

— Zer ba, Eibarren zubixak ibili eitten dittuk ala?

■ ■ ■ ■ ■

"Ama nahi dezunien jokaizu loterixe..." diño Azkoittiarren himnuak.

— Aurten ere eitzitek ezer tokau —Kejoso zebillen gabonostian azkoittiar haura. Hurrengo urtian be:

— Nik zaukeat malapatie. Aurten ere xentimorik ez.

Erukixa emoten ei eban gizonak. Lagun batek preguntau zotsan:

— Baina jokutzen al dek?

— Jokatu egin behar al da ba?

■ ■ ■ ■ ■

—Entrada bat mesedez —gizonak zineko bentanillan.

Handik puntuko:

— Emoidazu entrada bat.

Bost minutu baino lehenago:

—Ekarridazu beste bat, mekauen zotz.

— Zetan zabitz baina? Ointxe puntuan eztotsut pa emon? —bentanillakuak txokauta.

— Bai, baina atian dagon txorimalo horrek danak apurtzen dosta eta.

Juan Martin Elexpuru

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan



BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886 ARRASATE



Atomium. Bruselas. Europa. Berba magikoak 1958an. Aurrerapen eta zibilizazioaren ezau-garriak Francoren autarkia osteko Arrasaten. Eskola Profesionala martxan zegoen Don Jose Maria Arizmendiarrietaren gidaritzapean. Urte hartako abuztuaren Eskolak lehenengo bidaia Europara antolatu zuen. 110 bidaiari joan ziren, ikasle ohiak gehienak, hiru autobusetan, hoguei egunetarako. Nobedaderik handiena kanpaina dendak izan ziren, Bilbon bereziki eginak. Alemania eta Holanda bisitatu ostean, Bruselasera abiatu ziren Expo'58 ikustera. Han laupabost egun igaro ondoren, etxera bidea hartu zuten, Paristik bueltan. Argazkian zutik, ezkerretik eskuinera Jose Luis Abarrategi, Don Jose Maria Arizmendiarrieta eta Klaudio Pagaldai. Belaunikatuta, Eugenio Zabarte eta 30 urteko Juan Leibar.

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64



ERAÑA

AHOLKULARITZA

**OROTARAKO
ASEGURUAK**

Kontzesiño kalca 4, behea

Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE



CATY eta TINO betaurrekoak: 3.450 pta. bakarrik.

Guztia puskatzen duten mozkote horietakoentzat.

Haurrentzako betaurrekoak.
Benetan azkarrak, material
gogorrez eginak eta flex
sistema dutenak, alegia:
ziurrak, erosoak eta
iraupen luzekoak. Kolore
biziak eta egun eguneko
diseinuaz asmatuak.
Urtebetez garantizatuak
eta zure poltsikoak
eskertuko duen prezio
harrigarria: 3.450 pta.



San Pedro, 22 - BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
Gudarien Etorbidea, s/n. - ORDIZIA

Irailak 22, ostirala

Monterron Parkean,

Gaueko 10,30etan

“GOTHIC”

Zuzendaria: Ken RUSSELL

Sarrera: 200 Pta.

Irailak 29, ostirala

Monterron Parkean,

Gaueko 10,30etan

**“EL PRINCIPIO
DEL ARCA DE NOE”**

Zuzendaria: Roland EMMERICH

Sarrera: 200 Pta.

Antolatzaile: Arrasateko Udala ete Gipuzkoako Foru Aldundia

Haurtzaroko zaldia

Eguna zuen argitu laino beltzez beterik, arratsaz batera euri bilakatu eta hamaika danbolin musikaz ihardungo zuten lainoek. Urrineko etxe bakartian, leihoaz bestaldeko beltzari so, izu eta artega, nerabearoa urratzen hasitako mutila. Ilusiozko bere hamalau urtetan inoiz ikusi ez bezalako ekaitz beldurgarriak astindu zion oso bihotza, arinki taupadaka bularretik ihes egin beharrez. Trumoia eta tximista gauerdiko errege; noiz batak noiz besteak, beren mende hartua lur eremu guztia. Ilunak ez zuen luzaroz irauten, tximistak bait zuen uneoro argitzen.

Lantzean behin, ikus zezakeen makina bat euri anpulu beltza zen hura zeharkatzen, bustitzen... Tximisten argi azkarrak -han hemenka agertuaz, sor eta berehala hil, izeki orduko itzali- ziren ilargi-izarren ordekoak. Unerik une mendiak, soroak, bidezidorrak,... unerik une iluntasuna, sakona eta astuna, zituzten begizatzen mutikoaren begi ikaratuek.

Lipar batez, amets iheskor baten tankeran goizeko ordu moteletan, irudi mugikor batek zeharkatu zizkion begi tippiak. Ikaraz, dar-dar hasi zitzaion gorputza, baina, halaber, harik eta zabalari begiak hurrengo tximistaren zain, hura zer zen argituko ziolakoan. Batbateko ilunak areagotu egiten zuen barne ikara, argi indartsu biziki fite aienatuko zenaren etorrera zalantzan jarriaz... "Ekarriko ote argi dizdira?"... Ikusminak ikarak bezain beste harturik, jakinmin ezin zuen iraun. Mutikoaren ikusmina asetu nahirik itzelezko argi luzea marratu zion Naturak ortzeko marko ilunean; irudiaren misterioa hurbileko oroipen bihurturik. Han zegoen bere betiko maiestasunarekin, leihoz kanpoko mundu bustian; irmo, bere nagusi eta lagun izandakoari begira; gorputzaren belztasun dizdiratsuak, une batez, gauaren beltza leunki argituaz. Aurreko gauean hegohaizeak gogoen leku ezkututik hegaldatu eta amets mundura iraulitako bere zaldi laztanaren irudia zuen aitzinean. Eta hura atzeko ametsaren jarraipena zelakoan, euripean blai eginda ez zion axolarik. Bihotzeko, musu beroz sikatuko zion larru umela zalditxo galduari eta gainera igonda, zaldikorik trebeena bailitzen, izarren bidetik unibertsoa zeharkatuko zuten elkarrekin. Baina etxe ondotik zaldiarenganako bidea gero eta luzeago, gero eta bustiago... Belardia iragan ondoren baso ilun luzea, uneka ikus zezakeen zaldi bizkorraren atzean; ilun unetan, euri tantek ezarritako erritmoari jarriki, trostaren hots lokaztua entzuten zuen bitartean. Azkarki zihoan aldetzen urruneko infinitorantza, irrintzi malenkoniko batez, urrats astun eta dardartsuez heldutasunera hurbiltzen zen behialako laguntxoari azken adioa emanaz. Hamaika aldiz errepikatuko zuen "buelta zaitetz enegana", negarrak, eurri anpulekin bat egonik, gorrituko zizkion begiak eta lokatzetan belauniko, aurrera egin ezinik, tximisten argitara ortzea zeharkatuaz ikusiko haurtzaroko zaldia.

Eta errege egiten zion lainoz gaineko artizar gidariari bereganako bidea erakus ziezaion zaldi galduari; atzera berriz, itzul zedin. Baina hura, itzulerarik gabeko bidaia argiak oro itzaltzen ziren lekura. Joana zitzaion ilusiozko zaldia haurtzaroa bezala, ume aroko hainbat istorio eta zertzeladaz zamaturik. Arratseroko jolasak, jolas amaiezinak; neskatoekiko amorru eta borrokak; errege egun irrifartsuak; negarra eta irria, ausardia eta beldurra... troste bizian murgiltzen ziren gogoaren amildegietako sakonetan; noiz edo behin iheskortasun zentzu batez goioztirik ezabatuko zituzten aztarnak nola nerabearen negarrak. Eta, agian, indarberiturik, aurre egingo zion bizitzaren garratzari; ulertuz bizi izatea bizi izandakoa galdu eta gogoa sortzea dela, eta horretan datzala bizitzaren ederra, gogo sortze horretan... "Bizitzaren altxorra, gogoa".

J. L. Ramos

" PAL "

burdindegia, brikolage
eta
tresneria

Uribarri etorbidea,3
Tfnoa 79 31 99

ARTE LENIZ

koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

BATZOKIA
jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

■ **Euskadi Irratiak 20.000 entzule irabazi:** CIES (Ikerketa eta Estudio Soziologikoetarako Zentrua) agentziak argitaratu berri duenez, 1988ko apiriletik 1989ko apirilera Euskadi Irratiak 20.000 entzule gehiago bereganatu ditu. Emaizta hauen arabera, goizeko irratiaioak, informatiboak eta kirol saioak izan dira programarik arrakastatsuenak. Audientzia handiena lanegunetan izaten da, asteburuetan jaitsei egiten delarik, ia irrati guztietan gertatzen den fenomeno, bestalde. Gaueko audientziari dagokionean, igo egin da, CIESen datuen arabera. Poztekoa benetan.

■ **Bi laguni agur:** Zortzi hilabetez jo ta ke lanean makina bat izerdi elkarrekin bota ondoren, agur esan behar diegu oraintsu arte lankide izan ditugun **Juan Luis Azkarate** eta **Amaia Garro** lagunei. Erreportari eta publizista lanetan aritu dira Arrasate Pressen, beren ongi egitearen froga erakutsiz. Eskerrik beroenak gure artean egin duzuen lanagatik eta zorterik onena etorkizunerako.

■ **Arrasateko irrati-berriemaileak:** Arrasate Pressen izandako aldaketan ondoren, aurrerantzean Bego Zubia eta Jon Andueza izango dira Euskadi Irratia eta Arrate Irratiko berriemaileak Arrasaten.

■ **Komunikabideak dantzan:** Futbolean bezala, komunikabideetan ere fitxaketak eta, puri-purian daude. *Mariano Ferrerek*, esate baterako, utzi egin du Herri Irratia ETB2an eztabaida saio bat zuzentzeko. Radio Euskadiko zuzendariak hanka egin duenez, *Jose Mari Iriondok* beteko du lanpostu hori, zuzendari berria hartu bitartean. Jauzi handia eman duen bestea ETB1eko *Bingen Zupiria* da. Ihorretako informatiboak laga eta Ajuria Encara joan da, Jose Antonio Ardantzaren prentsaburua izatera.

■ **Donostiako Zinemaldia:** Polito hasi ziren gauzak ETB1ean aurtengo zinemaldiaren edizioaren irekitze egunean: elkarrizketa azkarrak, argitasuna, plano ederrak, aurpegi ezagunak, horrelakoetan egoten den giro tribiala... aurkezpen ofiziala hasi zen arte. Mikroak sekulako zarata egiten hasi ziren, apenas entzuten zen ezer.. nahiko txarto. Aurkezleak, polito samar. Bateren bat nabarmentzerakotan, Xabier Elorriaga azpimarratuko nuke. Eskarmentu handiko plazagizona iruditu zitzaidan. Rosa Zufiaren eskutik egunero datorkigun afalosteko laburpenak oso ondo tajututa daude. Nik behintzat gustora ikusi ditut.

Joxe Aranzabal




gusto baduzu

■ **The Little girl who lives down the Lane.** Ostiralean, gaueko 22,20etan izango dugu Nicolas Gessneren filme hau ikusteko aukera. Antzesleak, Jodie Foster, Alexis Smith eta Martin Sheen. 13 urteko neska batek sotoan ezkutatzeko bere amaren zerraldoa, beste pertsona batzuek hiltzen dituelarik bere sekretua isilpean gera dadin.

■ **37. Nazioarteko zinemaldia Donostian.** Heldu zaio amaierako ordua aurtengo Donostiako Nazioarteko zinemaldiari. Egunero bertan gertatu denaren berri eman, eta larunbat gauean, 20,45ak inguruan ere bertan izango ditugu ETBko kamarak, zuzenean, Zinemaldiaren klausuran.

■ **Jazzkena.** Igandean, 23,20an, aukera ona duzue Jazz maite duzuen guztiok ETBko programa honi esker. Azken urteotako klasiakoak, Donostia, Gasteiz eta Getxoko jazzaldietako irudiak eta askoz ere gehiago.

bideoak



Espioiak gu bezala.

Estatu Batuetan oso ospetsu egin den bikotea dugu hemen: Chaoy Chase eta Dan Aykroyd. Biak John Belushi komikoaren eskola berekoak, "Saturday night live" ibi teleaioak, alegia.

Oraingo honetan CIAko espia xeble bihurtu zaizkigu, hain xeble ze etsairik ere ez dute behar. Eta horrelako umorea gustoko dutenezat aproposa.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)

4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasi-koa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

5	+		:		= 2
x		x		+	
	-		+	7	= 8
:		-		:	
	+	9	:		= 7
= 4		= 3		= 5	

Aritgrama
Bete itzazu laukiak

Hiztegia lantzen

Zer da karia? Aukeratu zerrenda honetan definizio zuzena.

KARIA:

- A) Itsasontziak gorde eta babesteko tokia.
- B) Kaltzio karbonatoz osaturiko haitza, gure mendietan ohizkoena.
- D) Zerbaiten zergaitia, kausa.
- E) Behelainoari esaten zaio oso astuna edo itxia denean.

(Soluzioak 21. orrialdean)

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Etxean arazo batzuk izango dituzu. Lanean denbora gehiegi ematen duzulako. Saia zaitez denbora banatzen, etxekoek ere behar zaituzte eta.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Musika eta liburu onak behar dituzu etxean goxo-goxo gera zaitezten, baina erosterakoan ez kasurik egin hirugarren pertsoneri, badakizu ez direla fidagarriak.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Zintzilika daukazun betebeharrak horiei irtenbide bat aurkituko diezu. Lasai ibil zaitezke, gauza guztiak bere denbora behar dute eta.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Erakartzen ez zaituzten pertsoneri harremanetan jarri beharko duzu. Ondo etorriko zaizu zauden girotik ateratzeko. Azkenean pozik sentituko zara.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Zauden egoera, nahiz eta oso normala ez izan, atsegina da. Aprobetxa ezazu momentuz momentuz, laster bukatuko zaizu eta.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Lortu nahi baduzu behar duzun hori ez geratu etxean, mugitu zaitez eta ez asperitu lagunak zeure gorabeherekin. Dena den, nahiko aspertuta daukazazu.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Sentitzen duzun hutsune hori betetzea zure esku dago, zure buruari proposatu baino ez duzu behar. Gainontzeko arazo hauek konpontzeko bide bakarra da.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Eritiz aldatzeak ez dizu inolako mesederik egin, baina zuzen jokatu duzu eta ez zara damutuko. Ez zaitez beldurtu zenituen arrazoiak azaltzeko.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Aste honetan gertatutakoak zure bizitza goitik behera aldatuko du. Izango duzun hobekuntzak martxa handia emango dizu hurrengo egunetarako.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Oporretan izan dituzun gastuek zure ekonomia desorekatu dute. Ondo pentsatu inbertsio hori egin baino lehen eta ez zaitez kortatu laguntza eskatzeko.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Zure inguruko norbaitek berri ona emango dizu. Bestalde, egingo duzun bidaia batean espero ez zenuen gauza bat aurki dezakezu. Sorpresa gehiegi gorpuzterako.




PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Ez egon ea zerbait gertatzen den itxويتen. Badakizu esaera: Mendia Mahomarengana ez badao... Nagikeria astindu eta mugitu zaitez.



Opel Kadett



**ONA BAINO
HOBEA**

Autogintza esperientzia handia duena bakarrik has daiteke 1988an gehien saldu zen autoa hobetu nahian. Horixe egin du OPELek, eta hona emaitza: OPEL KADETT berria.

Zatoz ikustera Opel kontzesionari Ofizialetara.

Zain daukazu.

BERRIA



Zain gauzkazu

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria

Kontzesionari ofizialak

OPEL 
Hobeak esperietziagatik

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

TALLERES ALTAMIRA

Iparagirre. Tfnoa: 72 33 71